

2006/07 IKASTURTEKO FORMAKUNTZA BALORAZIOA

SARRERA

LAB-ek 2006/07 ikasturtean eginiko hausnarketa EAEn dauden Haurreskola Partzuergoko hezitzaileek jasotako formakuntzaren ingurukoa izan da. Formakuntzako balorazioa egiteko orduan, inkesta bat diseinatu dugu eta Haurreskola guztietan banatu dugu. Inkesta honetan 4 atal nagusi ezberdintzen dira:

Lehen atalean eta **bigarren atalean**, "lehen sorospenak" eta "elikagaien erabilerarako higie arauak" ikastaroak aztertzen dira. Nolako materiala jaso den, zein hizkuntzan, edukiak, iraupena eta irakaslea eta honek erabilitako metodologia.

Hirugarren atalean, Hezkuntza Proiektua aztertzen da. Hezkuntza proiektuaren barnean jardunaldiak, zonaldeko koordinatzaileen bilerak, zonaldeko mintegiak eta ikasturtean burututako lan pertsonala.

Laugarren atalean, Ikasturte honetan jasotako formakuntza aztertzen dugu. Alde batetik, Haurreskolak Partzuergoak kontratatutako enpresak (Orebe) emandako zerbitzua. Iazkoarekin alderatua, ezberdintasunak eta hezitzaileen ustez ze ezaugarri izan beharko lituzkeen beraienezako zuzenduriko formakuntzak.

HIRU LURRALDEETAN ATAL EZBERDINETAN JASOTAKO EMAITZAK

• LEHEN SOROSPENAK:

- ✓ Ikastaroan jasotako materiala egokia izan da, irakaslearen azalpenak bat zetozen banatutako materialarekin.
- ✓ Material gehiena euskaraz eman zen arren, Eibarren gaztelaniaz jaso zuten.
- ✓ Landutako edukiak:
 - Oso orokorrak. 0-2an asko sakondu gabe.
 - Baliogarriak lanerako, oinarri teorikoak zein praktikoak.
 - Gure lanean agertzen diren kasuak lantzea falta zen (kolpeak, zauriak, koxkak...)
 - Praktika gehiago.
- ✓ Iraupena:
 - Denbora gutxi.
 - Ikastaro bakar batekin ez da nahikoa, honelako ikastaroak maiztasun handiago batekin egiteko beharra.
 - Denbora praktikoa gehitu.
- ✓ Irakaslea eta metodologia:
 - Herrialdeen arabera datu ezberdinak jaso ditugu.
 - Araban oso ondo baloratu dute irakaslearen lana, edukiak ematerako orduan baliabide egokiak erabili ditu eta teoria eta praktika egoki uztartu ditu. Euskara maila ere ona.

- Bizkaiko kasuan, ez da berdin gertatu. Irakaslea oso euskara maila eskasekoa, apunteak ez zituen jarraitzen, praktika gutxi eta klasea ez zuen aurretik prestatzen.
- Gipuzkoa kasuan, euskara maila kaskarra zuen arren oso dinamikoa eta gaitasun handia zuen parte hartzea bultzatzeko.

• **ELIKAGAIEN ERABILERARAKO HIGIENE ARAUAK:**

- ✓ Jasotako materiala:
 - Bilbon euskaraz eta Donostian talde batzuk euskaraz.
 - Gazteizen eta Eibarren gazteleraz, eta Donostian talde batzuk gazteleraz.
- ✓ Edukiak:
 - Orokorrean, banatutako materiala bat zetorren azalpenekin.
 - Baliogarritasuna: Hezitzaileen eguneroko lanarekin lotura gutxi. Haurreskoletako errealitatera egokitu gabeko edukiak. Hostalaritzarako egokiagoa.
- ✓ Iraupena:
 - Egokia.
- ✓ Irakaslea:
 - Hizkuntzaren mailak baldintzatu du bere lana. Beraz, Bilbon eta Donostian oso ondo baloratu da bere lana baina Eibar eta Gasteizen ez.

• **HEZKUNTZA PROIEKTUA:**

- ✓ Jardunaldiak:
 - Formakuntzarako nondik-norakoak azaltzeko jardunaldi batekin aski da. Planteatu den bezala astunak bihurtu dira. Hala ere, hezitzaile berrientzat orientagarriak izan direla eta, hauek baliogarriak ikusten dituztela ere azpimarratu behar da.
 - “Familia eta eskolaren arteko” jardunaldia: Araban burutzeko aukerarik ez zen egon. Gipuzkoan eta Bizkaian balorazioa honako hau izan da:
 - Astuna.
 - Izenburua eta edukiak ez zetozen bat.
 - Egunerokotasunarekin zerikusirik ez.
 - Espektatibak ez zituen bete.
 - “Hizkuntzen tratamendua”:
 - Hizlaria oso ona.
 - Interesgarria eta baliagarria.
 - Edukiak: Saio gehiago mereziko luke.
 - Arrakastatsua eta dinamikoa.
 - Orokorrean jardunaldi hauek beharrezkoak ikusten dira eta hezitzaileek positiboki baloratzen dituzte eta jardunaldi hauei buruz egindako ekarpenen artean aipatuena hauexek izan dira: hizlariak haurrekin esperientzia izatea, 0-3 zikloan espezializatuak izatea eta haurreskoletako eguneroko errealitateak gertu egotea.
- ✓ Zonaldeko koordinatzaile bilerak:
 - Zonaldeko koordinatzailearen figura beharrezkoa ikusten da, Orebe-haurreskola arteko lotura bakarra delako eta figura horren bitartez informazioa pasatzen da, bien arteko zubi lana eginez.
 - Koordinatzaileentzat bilerak oso eraginkorrak dira eta oso ondo baloratuak izan dira.
 - Koordinatzaileek beren lana ondo bete dute eta beren kideek asko estimatu dute.
 - Arabako eta Gipuzkoako hezitzaileek ez dute zamatzat hartzen bere lana, baina Bizkaian orokorrean bai. Dena den, aipatu behar da

Gipuzkoan zamatzat bizi izan dutela lan hau, ordezkatuak izan ez direnean eta bere lankideengan suposatuta duen lan karga extragatik.

- Denbora bat aldeztu aurretik bilerak prestatzeko.
- ✓ Zonaldeko mintegiak:
 - Orokorrean ondo baloratuak izan dira .
 - Hezkuntza Proiektua aurrera eramateko metodo bezala ez da egokia.
 - Oso baliogarria: informazioa trukatzeko, haurreskola ezberdinak ezagutzeko eta arazo ezberdinei aurre egiteko eta irtenbide ezberdinak ezagutzeko.
 - Taldekatzea:
 - Zenbait kasutan taldekatzeak desegokiak izan dira, hirietako eta herrietako haurreskolak nahastuz, hauen ezaugarriak kontutan hartu gabe.
 - Landa eremuko haurreskolek proposamen bera proposatu dute: Landa eremuen artean nolabaiteko komunikazio sare bat sortzea beren ezaugarri bereziengatik.
 - Maiztasuna egokia.
 - Aberasgarriak: lan egiteko modu eta ikuspuntu desberdinak ezagutzeko aukera ematen duelako eta arazoak konpartitzeko gune delako.
 - Zailtasunak ordutegi ezberdinak ditugulako eta hezitzaile guztiak ez direlako bere lan zentrotik gertu bizitzen.
- ✓ Lan pertsonala:
 - Lan egiteko era: Batzuentzat egokia izan arren, beste askorentzat ez da egokia izan.
 - Ereduen falta.
 - Zailtasunak esperientzia faltagatik.
 - Presaka, eztabaida gabekoa.
 - Zailtasunak, lan pertsonalean egindako lana, beste hezitzaileek egindako lanarekin batzerako orduan.

• **FORMAKUNTZA OROKORREAN:**

- ✓ Orebe enpresa:
 - Orokorrean Orebe enpresak emandako zerbitzua onuragarritzat hartzen da eta bere lana oso ongi baloratu da.
 - Orebek egindako lana planifikatuagoa eta oso ondo egituratutakoa.
 - Bestetik, Maria Pardoren lana oso estimatua izan da, hezkuntzan lan egiten zuelako eta gure lanean sinesten zuelako.
- ✓ Zein ezaugarri izan behar ditu formakuntzak:
 - Praktiko eta 0-3 zikloari egokituta.
 - Funtzional, dinamiko eta etengabea.
 - Formakuntza, kurtso hasieran zein amaieran ez izatea.
 - Ordutegi aldetik malgua, lanorduetan egitea eta leku ezberdinetan aukera ematea.
 - Formakuntza ematen duenak haurreskoletan esperientzia izatea eta haurreskolen errealitatea ezagutzea.
 - Hauek dira hezitzaileak proposatzen dituzten gaiak:
 - Psikomotrizitatea.
 - Familiarik harremanak.
 - Egokitzapen prozesua.
 - Haur masaia.
 - Etorrinak.
 - Musika: abestiak, kantak...
 - Ipuin kontaketa.

- Euskara.
- Haurren elikadura, gaixotasunak, higiena, lo egiteko teknikak...
- Gelako eta eskolako antolamendua.
- Hezkuntza Proiektua: unitate didaktikoa eta programazioa.
- Premia bereziak dituzten haurrak.
- Ebaluazioa.
- Hezkidetzeta.
- Haur jolasak:joku heuristikoa.
- Esfinterren kontrola.
- Munduko haurreskolak: Italia, Frantzia, Ipar Europakoak...
- Gure osasuna zaintzeko ikastaroak.
- Informatika.
- Hezitzaileen pentsamolde ezberdinak zelan bateratu.
- Koordinatzaileen lanei buruzkoak.
- Hezkuntza teoria berriak.
- Materialen erabilpena.

ONDORIOAK:

- “Lehen sorospenak” eta “elikagaien erabilerarako higiena arauak” ikastaroak ez dira 0-3 adin tarteari egokituak izan. Hizkuntza ere ez da kontutan hartu, eta zenbait lekuetan adituak arazoak izan dituzte euskaraz oso maila kaxkarra baitzuten eta honek ikastaroen kalitatea mugatu du.
- **Hezkuntza Proiektuari** dagokionez, oso azkar eta denbora gutxiegiarekin egin behar izan da. Gainera, Haurreskolek langile ugari berriak direnez eta ziklo honetan esperientzia ez dutenez, eredu falta izan dute eta hainbatetan oso galduak egon dira. Beraz, Hezkuntza Proiektua egiterako orduan aniztasun hau kontutan izatea oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Hezkuntza Proiektua egiteko erabili den metodologia ez dute ontzat hartu.

Jardunaldiak formakuntzaren nondik-norakoak azaltzeko beharrezkoak dira baina batekin, nahikoa. Antolatutako beste bi jardunaldi espezifikoak, hau da, “familien harremanak” eta “hizkuntzaren tratamendua” interesgarritzat jotzen dira, baina oso garrantzitsua da jardunaldi hauen edukiak 0-3 adin tartean egokituak izatea eta egunerokotasuneko praktikan oinarrituta egotea. Azken finean, hezitzaileek gai horietan sakondu nahi dute baina betiere edukiak praktikan jartzeko xedearekin.

Zonaldeko koordinatzaile bilerak oso eraginkorrak eta ondo baloratuak izan dira. Figura hau beharrezkoa da hezitzaile eta Oreberen arteko zubi lana egiteko. Dena den, figura honen garrantzia ikusiz hainbat kasutan ez da bere lana baloratu eta erraztu. Hau aipatzen dugu azken hiruhilabete honetan Gipuzkoan ordezkorik gabe geundelako eta beren lana egiteko ez direlako ordezkatuak izan. Kasu hauetan, koordinatzaileei zama handia suposatu die lan hau burutzea jakinda, beste lankideen gainean uzten zutela. Bestalde aipagarria da beste hezitzaileek egiten duten balorazioa positiboa. Aspektu hau azpimarratzekoa dela iruditzen zaigu.

Zonaldeko mintegiak oso ondo baloratu dira baina ez betetzen zuten funtzioagatik,baizik eta haurreskola ezberdinak biltzeko existitzen den gune bakarra delako. Hezkuntza Proiektua burutzeko ez dira egokiak ikusten baina

hezitzaileek marko hau estimatzen dute beraien arazoak konpartitzen dituztelako, elkar ezagutzen direlako eta funtzionatzeko era ezberdinak ezagutarazteko aukera ematen duelako. Dena den, aipatu behar da Landa eremuko Haurreskolen kasuan isolamendua apurtzeko gune oso aproposa izan dela eta landa eremuko hezitzaileek asko eskertu dituztela mintegi hauek.

- **Formakuntzari** dagokionez oso ongi baloratu dute Orebek egindako lana. Hala ere, beraiek beharrezkoa ikusten dute formakuntza ematen duen pertsonak 0-3 ezagutzea, haurreskolen funtzionamendua ezagutzea eta honetan sinistea. Eta formakuntza praktikoa, dinamikoa, funtzionala eta etengabea izatea.

LAB-ek FORMAKUNTZAN EGITEN DUEN PROPOSAMENA:

Lehendabizi esan behar dugu, edozein formazio plana diseinatzerako orduan **diagnostiko** bati erantzun beharko liokeela. Hezitzaileen premia formatiboak antzeman, hau da, hezitzaileen beharra eta premieei egokituta egon beharko luke. Guk hemen jasotzen ditugun ideiak **inkestan jasotako emaitzak** eta LAB-ek jadanik 2004ean egin zuen formakuntza proposamenaren ildotik hausnartzen dugu nolakoa izan beharko zen formakuntza plana:

- Haurreskola gehienak berriak dira, batzuk sakabanatuta daude herri txikietan eta profesional askok esperientziarik gabekoa. Formakuntzak **isolamendu** hori puskatu beharko luke eta hezitzaileen arteko komunikazioa sustatu, elkarri eraginez harreman profesional sustatuz.
- Formakuntzak kontutan hartu beharko luke jende asko berria dela eta beste batzuk beteranoak direla. **Aniztasun** hau kontutan hartu behar da formakuntzan, eta era berean, kolektibo profesional honetan dagoen esperientzi aberatsa kontutan izan eta aprobetxatu.
- Formazioak lagundu beharko luke, lanean eraginez. **Praktikako dilemak** eta egoerak aztergai izan beharko lituzke. Formazio ekimenen eduki ardatz nagusia eguneroko lana izan behar da.
- **Komunikazio horizontala**, hau da, profesionalen arteko tarte handia eskeini behar zaio formazio planean. Koordinaketa, kontrastaketa, lankidetzeta eta elkar trukea sustatzen duena.
- **Ordutegi** eta **egutegiak** kontutan hartu beharko ditugu hau diseinatzerakoan. Inkesten emaitzetan lanegunetan izatea eta leku ezberdinetan egiteko aukera ematea.

Aspektu guzti hauek kontutan izan da, beharrezkoa ikusten dugu alde batetik, **gai zehatzak** eta **hurbilak** lantzea eta **bestetik hausnarketa** guneak sortzea. Beraz, aspektu guzti hauek kontutan hartzen baditugu hiru maila ezberdintzen ditugu:

1. Jardunaldiak: Gai zehatzak lantzea teorikoki zein praktikoki. Formakuntzaren inguruan egin dugun inkestan zerrenda zehazten da . Dena den, jardunaldiak antolatzerako orduan ezinbestekoa iruditzen zaigu ezaugarri hauek kontutan hartzea:
 - 0-3 zikloan egokituak egotea.
 - Hizlariak 0-3 zikloa adituak izatea.
 - Eguneroko praktika kontutan izatea.
 - Dinamikoa.

2. Zonaldeko mintegiak: Inkestetan jasotako emaitzen arabera oso ondo baloratua izan da eta haurreskoletan arteko harremana eta hezitzaileen arteko komunikazioa gauzatzeko ezinbestekoa. Gainera, kontutan hartzen badugu hainbat haurreskola txikiak direla eta jasaten duten isolamendua ikusirik ezinbestekoak ikusten dugu. Gune hauek aprobetxatu behar ditugu eta lantaldeak eta ekipo barruko koordinaketa bilerak antolatu beharko ditugu. Gau batzuk hausnartu, profesionalen arteko elkartrukea, dokumentu baten inguruko eztabaida eta kontsentsua, ikas-irakats materialak....formaziorako gune interesgarriak dira.
3. Aholkularitza : Hezitzailetaldeekin ahalegin formatiboari laguntza eskeiniko diona: Aholkularitza, haur bereziekin ze prozedura, protokoloak....

Euskal Herrian, ekainaren 21ean.